

10. IBILBIDEA

OIZKO PARKE EOLIKOA

Irteera-puntua	Mendatako Harrera-Puntua
Helmuga-puntua	Mendatako Harrera-Puntua
Ibilbidea	Mendata – BI 3222 Errepidea – Albiz – Urrutxu- BI-4223 Errepidea – Maume – Oizko Parke Eolikoa – San Kristobal Ermita – BI-3231 Errepidea – Bizkaiko Begiratokia – Urrutxu – Albiz – BI-3222 Errepidea- Mendata
Distantzia (km)	35,9
Pilatutako desnibel positiboa (m)	860
Gutxi gorabeherako iraupena	3 h
Bizikletentzako bidea	% 99
Norantza	Noratza bakarra % 70
Zoru-mota	Bidea/Pista % 26, Bide asfaltatua/Zementua % 15,4, Errepidea % 58,6
Zailtasun-maila	Oso handia
Bestelako informazioa	Oiz mendiko izen bereko parke eolikora garamatzan ibilbide interesgarria. Bertatik Busturialdearen ikuspegi zoragarria dago. Eskaera handiko ibilbidea da, oso desnibel handia duelako. Oiz mendiaren hegoaldean doa. Tontorrera igo ez duenarentzat ibilbide alternatiboa proposatzen da. Ibilbide alternatibo hau egitea derrigorrezkoa izango da behelainoa edo haize gogorra dagoenean. Esan behar da parke eolikoaren inguruan berau kontserbatzeko lanak egiten direnez bertaratzea ekidin egingo dugula ikuspena eskasa denean. Oiz mendiaren jaitsierari arreta handia jarri behar zaio bidearen malda handiagatik, eta ura eramatea komenigarria da ur-iturri gutxi daude-eta. Mendatako Harrera-Puntutik aterako gara eta, BI-3222 errepidetik igotzen joango gara poliki-poliki Urrutxura heldu arte. Aipatutako auzotik, eta kilometro ugaritan zig-zag-ean egin ostean, ezkerrarantz biratuko dugu Maumerantzko desbideraketa hartuz BI-4223 errepidetik. Auzo honetan amaitzen da asfaltozko bidea eta euriak oso zigortutako bide zabala hasten da. Bidegurutze eta okergune asko daude, eta betiere igotzeko joerarekin Oizko parke eolikora garamatzan errepide/bidetik joango gara Goiuriatik. Horretarako ezkerrarantz biratu beharko dugu. Errepide honetatik dagoen igoera ez da zaila baina bai luzea. Hori dela eta, gure


indarrak erregulatu, ura edan eta elikatu egin beharko dugu.

Ibilbide honek tontorraren inguruan bi alternatiba aurkezten ditu, eta bata edo bestea egitea gure hanken egoeraren arabera eta egunaren eguraldi-baldintzaren arabera izango da. Ispilua duen bidegurutzea Oiz mendiaren goialdera igo eta aerosorgailu handien azpitik ibiltzeko aukera emango digu. Beste alternatiba, aerosorgailue azpialdetik ibiltzea litzateke, zuhaitzen artean iskutatuta doan bide atseginetik. Edozein kasutan ere, bi ibilbideek bat egiten dute San Kristobal ermitaren inguruan.

Parke eolikora igotzeko pista gogorretik joan beharko dugu, aerosorgailuen artean, eta oso bide-zidor teknikitik telebista-antenatara helduko gara.

San Kristobal ermitatik aurrera oso jaitsiera luzea eta gogorra dago, desnibela handia baita oso. Jaitsiera amaitutakoan, itzulia BI-3231 eta BI-3222 errepideetatik egingo dugu Bizkaiko begiratokitik, Urrtxuko eta Albizko auzoetatik eta azkenean Mendatako uritik.





IRTEERA PUNTUA ETA HELMUGA PUNTUA: MENDATAKO HARRERA PUNTUA (BIZKAIA).

IBILBIDEA: MENDATA - BI-3222 ERREPIDEA - ALBIZ - URRUTXU - BI-4223 ERREPIDEA - MAGUNA - OIZKO PARKE EOLIKOA - ERMITA SAN CRISTÓBAL - BI-3231 ERREPIDEA - BIZKAIKO BALKOIA - URRUTXU - ALBIZ - BI-3222 ERREPIDEA - MENDATA

KM: 35,9 - METATUTAKO DESNIBEL POSITIBOA: 860 M - IRAUPENA, GUTXI GORABEHERA: 3 H

BIZIKLETENTZAKO BIDEA: 99% - NORANZKO BAKARRA: 70% - ZORU MOTA: PISTA/BIDEA 26%

BIDE ASFALTATUA: 15,4% ERREPIDEA 58,6% - ZAILTASUN MAILA: OSO HANDIA.

IBILBIDE INTERESGARRI HORREK OIZ MENDIAREN GAILURREAN DAGOEN PARKE EOLIKORA ERAMANGO GAITU. BERTAN, BUSTURIALDEKO BAILARAREN PANORAMIKA IKUSGARRIA DAGO.

IBILBIDE GOGORRA DA, DESNIBEL HANDIAK DITUENA ETA OIZ MENDIRA HEGOALDETIK IGOTZEN DENA. HALA ERE, GAILURRERAKO AZKEN IGOERA SAIHESTEN DUEN ALDAERA ALTERNATIBO BAT ERE DISEINATU DA. ALDAERA HORI NAHITAEZKOA IZANGO DA LAINOA DAGOENEAN EDO HAIZEAK GOGOR JOTZEN DUENEAN. GAINERA, PARKE EOLIKOAREN INGURUAN MANTENTZE LANAK EGITEN DIRA ETA, BERAZ, IKUSPENA TXIKIA DENEAN EZ GARA IGOKO.

KONTU HANDIA IZAN BEHARKO DUGU OIZ MENDIAREN JAITSIERAN, ALDAPA OSO HANDIA BAITA. GAINERA, BEHAR ADINA UR ERAMAN BEHARKO DUGU, BIDEAN AUKERA GUTXI IZANGO BAITUGU UREZ HORNITZEKO.

MENDATAKO HARRERA PUNTUTIK IRTENGO GARA ETA, BI-3222 ERREPIDETIK, URRUTXURA IGOKO GARA ASTIRO-ASTIRO. HERRI HORI IGARO ETA HAINBAT KILOMETROTAN BIHURKA IBILI ONDOREN, MAGUNARA ERAMANGO GAITUEN BI-4223 ERREPIDEA HARTUKO DUGU EZKERRETAN.


MAGUNA IGARO ONDOREN, ASFALTOA UTZI ETA EURIK HONDATUTAKO BIDE ZABAL BATETIK IBILIKO GARA. HAINBAT BIDEGURUTZE ETA BIHURGUNE DITUEN BIDE HORRETAN ZEHAR GORA EGINGO DUGU BETI, ETA GOIURIATIK OIZKO PARKE EOLIKORA DOAN ERREPIDE/BIDEA HARTUKO DUGU EZKERRETAN. ERREPIDE HORRETAN, IGOERA JARRAITUA ETA LUZEA DA. HORREGATIK, BEHAR ADINA JAN ETA EDANGO DUGU INDARRIK EZ GALTZEKO.

IBILBIDEAK BI ALTERNATIBA ESKAINTZEN DITU GAILURRAREN INGURUAN. ZEIN ALTERNATIBA HARTUKO DUGUN ERABAKITZEKO, GURE INDARRAK ETA EGURALDIA HARTUKO DITUGU KONTUAN. ISPILU BAT DUEN BIDEGURUTZE BATETIK, OIZ MENDIAREN GAILURRERARA IGO ETA AEROSORGAILU HANDIEN AZPITIK IBILI AHAL IZANGO GARA. BESTELA, MENDI HEGALAREN ERDIALDEAN BABESTUTA IBILTZEKO AUKERA ERE IZANGO DUGU, ZUHAITZ ARTEAN EZKUTATUTAKO BIDE ATSEGIN BATEAN BARRENA. NOLANAHI ERE, BI IBILBIDEAK SAN KRISTOBAL ERMITAN ELKARTZEN DIRA.

PARKE EOLIKORA IGOTZEA ERABAKITZEN BADUGU, AEROSORGAILUEN ONDOKO PISTA GOGOR BAT ETA TELEBISTA ANTENEN INGURURA ERAMANGO GAITUEN ETA OSO TEKNIKOA DEN BIDESKA LABUR BAT ZEHARKATUKO DITUGU.

SAN KRISTOBAL ERMITAN, JAITSIERA LUZE ETA GOGORRA HASTEN DA. KONTU HANDIA IZAN BEHARKO DUGU, DESNIBELA OSO HANDIA BAITA. JAITSIERA AMAITU ONDOREN, BI-3231 ETA BI-3222 ERREPIDEETATIK ITZULIKO GARA ETA, BIDEAN, BIZKAIKO BALKOI EZAGUNA ETA URRUTXU, ALBIZ ETA MENDATA HERRIAK ZEHARKATUKO DITUGU.

EUSKADI BTT ZENTROEN MARKATZEKO PLAKAK ○ BU015
EUSKADI BTT ZENTROEN MARKATZEKO ZUTOINEAK □ BU192



GOGOAN IZAN - ERABILI KASKOA - ERRESPETATU OINEZKOEN LEHENTASUNA ETA ZIRKULAZIO ARAU OKORRAK - ERRESPETATU IBILBIDEEN SEINALEAK ETA ZIRKULAZIO NORANZKOA - EUSKADIKO BTT ZENTROAK EZ DIRA ZIRKUITUEN OKERREKO ERABILERAREN ERANTZULE IZANGO, EZ ETA ERABILTZAILÉEN ZUHURTZIAGABEKERIEEN ERANTZULE ERE - GALDUZ GERO, GOGOAN IZAN SEINALEAK ZENBAKI BATEKIN KODETUTA DAUDELA. DEITU HARRERA PUNTURA ETA/EDO BESTE LAGUNTZA ZERBITZU BATERA, ETA JAKINARAZI ZENBAKIA - TXIRRIINDULARITZA FEDERAZIOAREN BITARTEZ FEDERAZIOAREN LIZENTZIA ATERTATZEA **GOMENDATZEN DUGU** (ESKATU INFORMAZIOA EUSKADIKO BTT ZENTROKO LANGILEEI).

EZ AHAZTU - SEINALERIK EZ BADAGO, JARRAITU LEHENTASUNEN BIDETIK - BAKARRIK IBILI BEHAR BADUZU, ADIERAZI ZER IBILBIDE EGINGO DUZUN HARRERA PUNTUAN - IRTEN AURRETIK, AZTERTU BIZIKLETAREN EGOERA ETA JASO DENBORARI ETA IBILBIDEARI BURUZKO INFORMAZIOA - EZ AHAZTU URA, KONPONKETA OSAGARRIAK ETA SAKELAKO TELEFONOA ERAMAN BEHAR DITUZULA - EZ GUTXIETSI IBILBIDEEN ZAILTASUN TEKNIKOAK, ETA AUKERATU IBILBIDEAK ZURE GAITASUN TEKNIKOAREN ETA FISIKOAREN ARABERA.

KONTUZ - KONTUAN HARTU IBILBIDEETAKO BASO LANAK ETA NEKAZARITZA LANAK - KONTU HANDIA IZAN EHIZA GARAIA - ERRESPETATU INGURUA - ERRESPETATU ITXITURAK, ETA ITXI BERRIZ IGARO ONDOREN - ERRESPETATU ZONA PRIBATUAK ETA KULTURA ETA ONDARE INGURUNEAK - ERRESPETATU NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA BASO JARDUERAK, INGURUKO BIZTANLE ASKOREN LANBIDEA BAITA - ERRESPETATU INGURUMENA, INGURUKO BIZTANLEAK ETA ANIMALIAK - EZ EGIN ZARATARIK - ERRESPETATU INGURUKO LASAITASUNA, HEGAZTIEK HABIAK EGITEN DITUZTEN LEKUTAN BEREZIKI - EZ BOTA PIZTUTA DAGOEN ZIGARROKINIK ETA POXPOLURIK; AXOLAGABEKERIA HANDIA DA, ETA OSO ARRISKUTSUA - EZ BOTA ZABORRIK MENDIRA. UTZI JOLAS AREETAN EDO HERRIETAN DAUDEN EDUKIONTZIETAN.

GOZATU NATURAZ ZARATARIK ETA PRESARIK GABE.

IBILBIDE 10 - OIZKO PARKE EOLIKOA